

# ALAMEDAKO DANTZALDIA


Audiodramak, usoak, balsak.

**Eider Adeletx**  
Sra. Polaroiskaren  
proiektuan oinarrituta



**Harremanetarako:**  
EZTENA Liburuak  
eztena@liburuak.eus  
www.eztনা.liburuak.eus

**Izenburua:** ..... Alamedako dantzaldia:  
audiodramak, usoak, balsak.  
**Egilea:** ..... Eider Adeletx Sra. Polaroiskaren  
proiektuan oinarrituta.  
**Argitaratzailea:** ..... Eztena jaialdia - Zizt! kultur elkarte.  
**Ezaugarriak:** ..... Antzerkia. 118 orrialde. 14×20cm.  
**Hizkuntza:** ..... Euskara.  
**Argitalpen data:** ..... 2021eko ekaina  
**Lizentzia:** ..... Creative commons.  
**ISBN:** ..... 978-84-09-31172-9



## Alamedako dantzaldia: audiodramak, usoak, balsak.

2020ko irailean *Alamedako dantzaldia* izeneko performancea gidatu zuen Sra. Polaroiska kolektiboak Eztena arte eszenikoen jaialdiaren barruan. Proiektu hura Errenteria herriaren 700. urteurrenako ospakizunekin lotuta egin zen. Sra. Polaroiska kolektiboa osatzen duten Maria Ibarretzek eta Alaitz Arenzanak elkarrizketak egin zizkieten herritarrei udan zehar, eta irailean Oier Zuñiga, Alizia Otxoa, Gaizka Chamizo eta Alazne Corral aktoreen laguntzarekin osatu zuten proiektua. Ez zen edonolako erronka izan: mundu mailako pandemia baten ondorioz ia debekatua geratu zen dantza egitea, gorputzak gorputzen pare izerditzea, eta testuinguru horretan dantzaldi bat gauzatzea zen erronka. Emaidza audio-pieza bat izan zen, eta jaialdiaren barruan egindako entzunaldi kolektiboa, askatasun keinu bat.

*Alamedako dantzaldia*, oro har, esperimentu handi bat izan zen, eta bulkada horri berari jarraika beste urrats bat eman dugu aurtengo Eztenan: enkargua egin diogu Eider Perez 'Adeletx' aktore eta idazleari idatzizko sormen lan berri bat egin dezan, Sra. Polaroiskak egindako lana oinarri.

Esku artean duzue emaitza.

# Biografiak

## Eider Perez Martinez (Pasaia Trintxerpe, 1995)

Hainbat testu argitaratu ditu *Lekore* aldizkarian, Txakur Gorria sormen kolektiboaren talde-lanetan eta zenbait literatur sariketen bildumetan. Hitzen Uberan literatur webguneko sinaduren atalean eta Oarsoaldeko hitzan kolaboratu du, eta *Izotzetan islatuak: euskal idazle gazteen bilduma* (Liberoamerika, 2020) antologian hartu du parte. 2016. urtean *Autobiographikal* poesia errezitaldi dramatizatua sortu zuen Ane Zubeldiarekin batera, eta lan harekin plazaz plaza ia lau urtez aritu ostean, *Andre eta jabe* euskal emakume poeten ibilbideari buruzko ikuskizuna egiten jarraitu zuen Leire Etxezarreta musikariarekin elkarlanean. Aurkezle eta gidoigile lanetan aritu izan da eta Mintzola Ahozko Lantegiak egiten dituen Sormen Egonaldietan egin du lan azken bost urteetan.

Antzerkia ikasten hasi zen Zurriola Antzerki Eskolan hamabost urte zituela, eta prestakuntzaz prestakuntza dabil gaur egun arte. 2019ko Eztena jaialdian *Aldarri* emanaldian hartu zuen parte ikuskitzunekeo lantalde osoarekin batera.

Euskal Ikasketetan graduatua da eta 2018. urteaz geroztik Euskal Herriko Bertsozale Elkartekeo langilea.

## Sra. Polaroiska

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe Sra. *Polaroiska en Sillon de Taller*-en sortzaileak dira. Alaitz Arenzana Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Artista moduan sortutako lehen lanetatik argi utzi zuen bere bidea arte mundutik gertu dauden ikerkuntza eta sorkuntza praktikei lotuagoa egongo zela irudiaren alderdi industrialei baino. Aldi berean, dokumental, publizitate eta telebista saioetan errealizadore moduan lan egiten du. Maria Ibarretxe Arte Dramatikoan diplomaduna da, eta sormen eszenikoaren eta performancearen mundutik dator. Horrez gain, dantzari eta aktore bezala lan egin du zenbait konpainiatan. Bien arteko kolaborazioak bi mundu horien elkarreragina ekarri eta tarteko espazio bat sortu du. ruemaniak taldeko kideak ere badira, zeinak dantza eta arte eszenikoaren ikerkuntzan baitihardu.

Sra. *Polaroiska en Sillon de Taller*-en ikus-entzunezko lana akziozko artearen, sorkuntza eszenikoaren eta koreografikoaren inguruan datza. Beren lana beste espazio eta lengoaien aurkikuntzan oinarritzen da, non gorputza eta aurkitzen den espazioarekin duen

erlazioa baita betiere protagonista nagusia. Narrazio egitura konben-  
tzionaletatik eta ikusleari itxitako kontzeptuetatik ihes egiten dute.  
Euren lanak, anbiguoak nahita, gorputzari lotutako rolekin jolasean  
dabiltza, ikuslearen begirada ezegonkortuz, ikusten ari den horren  
aldeko jarrera harraraziz. Ikuslea euren munduan guztiz murgiltzen  
da, eurek sortutako espazioan. Espazio hori irekia da, hala ere, in-  
terpretazio anitzak posibleak dira, pantailan gertatutakoa behatzen  
duten begiradak bezainbeste.